

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

On line aplikazio bat da bertako produktuak saltzeko erabiliko dugun kanala. Horrela zuzenean bezeroarekin harremanetan jar gaitzke.

Bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko dugun bide nagusia korreo elektronikoa da, hau da, elikaleku@gmail.eus . Modu honetan bere produktua saldu nahi duen edonor gurekin harremanetan jar daiteke, eta bi aldeak ados jarriz gero, bere lekua emango genioke aplikazioan. Prozesu honetan bost euro ordaindu beharko ditu, eta aplikazioan saltzen jarraitu nahi badu, ordaintzen jarraitu beharko du.

Saltzerako momentuan sortzen diren bost faseak, (pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa) ekoizlearen eta eroslearen artean ematen dira, guk ez dugu parte hartzen. Hau da, beraien artean harremanetan jartzen dira Elikalekuren bidez, eta adostu egiten dute nola entregatuko den produktua edo prezioan aldaketaren bat egingo duten.